

GUIA patrimonio protegido



asociación de personas
con discapacidad física de álava

arabako gutxitasun fisikoa duten
pertsonek elkar



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



¿Qué ES EL patrimonio protegido de las personas con discapacidad física?

Son unos bienes precisos (dinero, inmuebles, derechos, títulos, etc.) designados por medio de un instrumento jurídico para que con ellos, y con los beneficios que se deriven de su administración, la persona con discapacidad física haga frente a sus necesidades a lo largo de la vida.

¿DE DONDE VIENE EL PATRIMONIO PROTEGIDO?

Desde el año 2003 las personas con discapacidad cuentan con una nueva herramienta para su protección económica: el patrimonio protegido. Una figura jurídica compuesta por bienes y derechos que emanan de la **LEY 41/2003, de 18 de noviembre, de protección patrimonial de las personas con discapacidad y de modificación del Código Civil, de la Ley de Enjuiciamiento Civil y de la Normativa Tributaria con esta finalidad.**



¿TODAS LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD FISICA SE PUEDEN BENEFICIAR DEL PATRIMONIO PROTEGIDO?

No, solo aquellas con un porcentaje de discapacidad física igual o superior al 65 por ciento.

¿Quién constituye el Patrimonio Protegido?

Pueden constituir el Patrimonio Protegido: La propia persona con discapacidad. Los padres, tutores, curadores o guardadores de hecho y cualquier persona con interés legítimo.

Toda persona que tenga un interés legítimo y quiera proteger y beneficiar a una persona con discapacidad puede constituir un Patrimonio Protegido.

¿Cómo se constituye el Patrimonio Protegido?

La constitución del Patrimonio Protegido es un proceso sencillo que se realiza en escritura pública ante notario por la persona o personas que la proponen, sin coste fiscal alguno.

En la escritura se identifica al beneficiario, los bienes que inicialmente se aportan, y se establecen las reglas que deben aplicarse para su administración, indicando quiénes desempeñarán la administración cuando no puede ser efectuada por la propia persona con discapacidad.

Si se aportan bienes inmuebles, ha de anotarse en el Registro de la Propiedad su condición de integrantes de un patrimonio protegido.

CONSTANCIA REGISTRAL:

Si la administración del patrimonio no corresponde ni al beneficiario, ni a sus padres, tutores o curadores, la representación legal del administrador debe constar en el Registro Civil.

La misma mención se hará en los restantes bienes que tengan el carácter de registrables. Si se trata de participaciones en fondos de inversión o instituciones de inversión colectiva, acciones o participaciones en sociedades mercantiles que se integren en un patrimonio protegido, se notificará por el notario autorizante o por el juez, a la gestora de los mismos o a la sociedad, su nueva cualidad.

Cuando un bien o derecho deje de formar parte de un patrimonio protegido se podrá exigir por quien resulte ser su titular o tenga interés legítimo en la cancelación de las menciones a que se refiere el apartado anterior.

1. Las aportaciones de bienes y derechos posteriores a la constitución del patrimonio protegido estarán sujetas a las mismas formalidades establecidas en el párrafo anterior para su constitución.

Aportaciones al patrimonio protegido.

2. Cualquier persona con interés legítimo, con el consentimiento de la persona con discapacidad, o de sus padres o tutores o curadores si no tuviera capacidad de obrar suficiente, podrá aportar bienes o derechos al patrimonio protegido. Estas aportaciones deberán realizarse siempre a título gratuito.
3. Al hacer la aportación de un bien o derecho al patrimonio protegido, los aportantes podrán establecer el destino que deba darse a tales bienes o derechos.

Extinción.

El patrimonio protegido se extingue por la muerte o declaración de fallecimiento de su beneficiario o por dejar éste de tener la condición de persona con discapacidad.

Regulación en Alava

Deducción por aportaciones realizadas al patrimonio protegido de la persona con discapacidad: IRPF

Los contribuyentes podrán aplicar una deducción del 30 por 100, con el **límite anual máximo de 3.000 euros**, por las aportaciones al patrimonio protegido de la persona con discapacidad, regulado en la Ley 41/2003, de 18 de noviembre, de protección patrimonial de las personas con discapacidad y de modificación del Código Civil, de la Ley de Enjuiciamiento Civil y de la Normativa Tributaria con esta finalidad. La aportación máxima a dicho patrimonio que daría derecho a la práctica de esta deducción será de 10.000,00€ anuales.

La deducción a que se refiere el apartado anterior se podrá aplicar por los contribuyentes que tengan con la persona con discapacidad una **relación de parentesco en línea directa o colateral, hasta el tercer grado inclusive, así como por el cónyuge o pareja de hecho de la persona con discapacidad o por aquéllos que lo tuviesen en régimen de tutela o acogimiento.**

En ningún caso darán derecho a la aplicación de esta deducción las aportaciones efectuadas por la propia persona con discapacidad titular del patrimonio protegido.

Tratándose de **aportaciones no dinerarias** se tomará como importe de la aportación el que resulte de lo previsto en el artículo 20 de la Norma Foral del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

La **adquisición de bienes y derechos** que correspondan a las aportaciones al patrimonio protegido de la persona con discapacidad estarán **exentas en el Impuesto de Sucesiones y Donaciones.**

Información para personas titulares de patrimonios protegidos que tienen capacidad de obrar:

Cualquier notaria de la provincia.

Fundación Aequitas, con sede en Madrid, especializada en temas notariales de discapacidad física.

Página web: www.aequitas.org

Teléfono: 913.087.232

Fax: 913.087.053

E-mail: info@aequitas.org

Información fiscal Diputación Foral de Alava. Hacienda Foral:

hacienda@alava.net

Teléfono información fiscal: 945.18.15.55



ondare babestuari buruzko GIDA



asociación de personas
con discapacidad física de álava

arabako gutxitasun fisikoa duten
pertsonek elkartea



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ondare babestuari buruzko GIDA

ZER DA URRITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN ONDARE BABESTUA?

Tresna juridiko batek esleitzen dituen ondasun zehatz batzuk dira (dirua, higiezinak, eskubideak, tituluak, etab.). Ondasun horien kudeaketatik eratorritako irabaziei esker, urritasun fisikoak dituzten pertsonak bizitzan zehar izango dituzten beharrei aurre egin ahal izango diete.

ZEIN DA ONDARE BABESTUAREN JATORRIA?

2003. urteaz geroztik, urritasun fisikoa duten pertsonak beren burua ekonomikoki babesteko tresna berri bat dute eskura: ondare babestua. Hau da, **azaroaren 18ko 41/2003 LEGEtik** eratorritako ondasun eta eskubideez osatutako figura juridikoa. **Lege hori, hain zuzen, pertsona ezgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta horri buruzko zerga-araudia aldatzekoa da.**



ez, ehuneko 65eko urritasun fisikoa edo handiagoa duten pertsonak soilik.

URRITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONA GUZTIAK IZAN AL DAITEZKE ONDARE BABESTUAREN ONURADUN?

NORK SOR DEZAKE ONDARE BABESTUA?

Urritasun fisikoa duen pertsonak, beren gurasoek, tutoreek, egitezko zaintzaileek eta interes legitimoa duen edonork sor dezake Ondare Babestua.

Interes legitimoa duen eta urritasuna duen pertsona babestu eta pertsona horri mesede egin nahi dion pertsona orok sor dezake Ondare Babestu bat.

NOLA SORTZEN DA ONDARE BABESTUA?

Ondare Babestua sortzeko jarraitu beharreko prozesua oso erraza da. Ondare Babestua sortu nahi duen pertsonak edo pertsonak eskritura publikoa egin behar dute notarioaren aurrean. Prozesuak ez du inolako kostu fiskalik.

Eskrituran, onuradunaren izena jasotzen da, bai eta babestutako ondarea hasiera batean zer ondasunek osatzen duten ere; bestalde, ondasun horiek kudeatzeko arauak zehazten dira, urritasuna duen pertsona ondasun horiek kudeatzeko gai ez denean kudeaketa nork egingo duen adierazita.

Babestutako ondarean ondasun higiezinik izanez gero, jabetza-erregistroan jabetza horiek ondare babestu baten zati direla adierazi behar da.

ERREJISTROAN JASOTZEA:

Ondarearen kudeaketa egitea onuradunari, bere gurasoei, tutoreei eta zaintzaileei ez badagokie, kudeatzailearen legezko ordezkaritza Erregistro Zibilean jaso beharko da.

Aipamen bera egin beharko da erregistratu beharreko ondasun guztien kasuan. Ondare babestuaren baitan inbertsio fondoetako edo talde-inbertsioak egiten dituzten erakundeetako partaidetzak, akzioak edo merkataritza-sozietateetako partaidetzak izanez gero, notario eskuesleak edo epaileak izaera hori jakinarazi beharko dio partaidetza horiek kudeatzen dituen pertsona edo erakundeari.

Ondasun edo eskubide batek ondare babestuko zati izateari uzten dionean ondasun edo eskubide horren titularrak edo interes legitimoa duenak aurreko atalean aipatutako aipamenak bertan behera uztea eska dezake.

1. Ondare babestua sortu ondoren egiten diren ondasun- eta eskubide-ekarpenei dagokienez, ondare hori eratzeako aurreko paragrafoan ezarritako formalitate berberak bete beharko dira.

Ondare babestura egindako ekarpenak.

2. Interes legitimoa duen pertsona orok ondasun edo eskubideak gehitu ditzake ondare babestura. Ekarpene hori, betiere, urritasuna duen pertsonaren baimenarekin egin behar da, eta, urritasuna duen pertsonak horrelakorik erabakitzeko gaitasunik ez badu, gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen baimenarekin. Ekarpene horiek dohainik egingo dira beti.
3. Ondare babestura ondasun edo eskubide bat gehituz gero, ekarpena egin duenak ondasun edo eskubide horien erabilera zein izango den zehazteko eskubidea izango du.

Iraungipena.

Ondare babestua onuraduna hiltzean edo urritasuna duen pertsonak urritasuna izateari utzitakoan iraungitzen da.

Arabako araudia

Urritasuna duen pertsonaren ondare babestura ekarpenak egiteagatik aplikatzen den kenkaria: PFEZ

Zergadunek 100eko 30eko kenkaria aplikatu ahal izango dute urritasuna duen pertsonaren ondare babestura ekarpenak egiteagatik. Kenkari hori **urteko 3.000 eurokoa izango da gehienez ere**, azaroaren 18ko 41/2003 Legeak, pertsona ezgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta horri buruzko zerga-araudia aldatzekoak, araututakoari jarraiki. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, ondare babestura egindako ekarpenak gehienez ere 10.000 €-koa izan behar du urtean.

Aurreko paragrafoan aipatutako kenkari hori urritasuna duen pertsonarekin **ahaidetasun zuzena edo zeharkakoa duten zergadunek (hirugarren mailara artekoak barne), urritasuna duen pertsonaren senar-emazteek, izatezko bikoteek, pertsona horren tutoretza dutenek edo arduradunek aplikatu ahal izango dute.**

Ondare babestura ekarpena egiten duena ondarearen titulartasuna duen pertsona urritua bera izanez gero, ez du kenkari hori aplikatzeko inongo eskubiderik izango.

Ekarpen hori diruzkoa ez denez, ekarpenaren zenbatekoa Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen Zerga Erregimenari eta Mezenasgoari emandako Zerga Pizgarriei buruzko Foru Arauaren 20. artikuluan aurreikusten denaren araberakoa izango da.

Urritasuna duen pertsonaren ondare babestura gehitzeko **erosten diren ondasun eta eskubideei ez zaie Oinordetza eta Dohaintza Zerga aplikatuko.**

Tratamendu fiskala



**Jarduteko gaitasuna izanik ondare babestuen titular
direnentzako informazioa:**

Probintziako edozein notariotza.

**Madrilgo Aequitas Fundazioa, urritasun fisikoarekin
lotutako notario-gaietan espezializatua.**

Web orria: www.aequitas.org

Telefonoa: 913.087.232

Faxa: 913.087.053

E-maila: info@aequitas.org

Arabako Foru Aldundiko zerga-informazioa. Foru Ogasuna:

Zerga-informazioa lortzeko telefonoa: 945 18 15 55

